

**UDALBATZAK 2017KO IRAILAREN 26AN
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION
AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko irailaren 26ko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu) alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

Orereta/Errenteriako EHBildu

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

Errenteria IrabaziZ

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

EAJ/PNV

- Maite PEÑA LÓPEZ

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DE PLENO DE
LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 26 DE
SEPTIEMBRE DE 2017**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 26 de septiembre del año dos mil diecisiete, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Julen MENDOZA PÉREZ (Orereta/Errenteriako EHBildu), los siguientes Concejales:

Orereta/Errenteriako EHBildu

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Itziar OSTOLAZA GALDÓS
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

Euskal Sozialistak-Socialistas Vasco

- María Almudena DE LA TORRE FERNÁNDEZ
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- María Teresa AZPILICUETA LLORENTE
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Montserrat LUIS CANO
- Iñaki RUIZ ALONSO

Errenteria IrabaziZ

- Yon COLLAR RIOSECO
- Jose Cruz LEGORBURU AYESTARÁN
- Nagore BASURTO ESCAMILLA
- Miguel María RODRÍGUEZ BARBERO

EAJ/PNV

- Maite PEÑA LÓPEZ

- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos)

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore SARASOLA OTERMIN idazkari nagusia.

Era berean, bertan dago M^a José SANCHEZ PLAZA udal kontu-hartzailea.

1. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 2228 zk.tik 2772 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

2. Berri ematea: Kontuhartzaitzako txostenak.

Ondokoak jakinarazi dira:

- Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzkoa
- Aurrekontuaren exekuzio espedientea: 2 hiruhilekoa
- 2017ko ekitaldiko ordainketa pearen informazioa: 2 hiruhilabetea

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

- José Manuel FRANCO INSAUSTI
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

No asiste excusando su inasistencia, Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos)

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Nagore SARASOLA OTERMIN.

Igualmente asiste la Interventora Municipal M^a José SANCHEZ PLAZA.

1. Cuenta de Resoluciones del Alcalde y de Concejales Delegados, n^os. 2228 al 2772 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

2. Dar cuenta: Informes Intervención.

Se da cuenta de los siguientes:

- Informe sobre el cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera
- Expediente de ejecución Presupuesto: 2. trimestre
- Plazo medio de pago factura durante el ejercicio 2017: Trimestre 2^a

El Pleno queda enterado.

3. Berri ematea: 2016ko Kontu Ikuskapeneko Txostena.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. ELA sindikatuaren izenean Jon Urkolak aurkeztutako mozioa, PSE-EE/PSOE-k sinatutakoa: Enplegu bermerako mozioa Erreneriako zerbitzu publikoak udaleko bihurtzean.

Jon Urkola Zubeldiak, ELA sindikatuaren eta TAOko langileen ordezkariak, ondoko mozioa irakurri du:

Aurrekariak

Gizarte-estatu batean botere publikoen jarduketan presente egon hehar du pertsonen garapena ahalbidetzen duten gutxieneko bizi baldintzak ezartzeak.

Krisi ekonomikoa oso eragin negatiboa izaten ari da lan-merkatuan. Langabeziak gora egin du eta enplegua dutenen lan-baldintzak kasu askotan murrizketa handiak jasaten ari dira.

Testuinguru horretan Erreneriako udal gobernuak herritarrei aurkeztu zien programa-akordioaren garatu beharreko puntuetako bat zen Udalak herritarrei azpikontratutako enpresa pribatuen bidez eskaintzen zizkien zerbitzu publikoak udaleko bihurtzea.

3. Dar cuenta: Informe de Auditoría de las Cuentas del año 2016.

El Pleno queda enterado.

4. Moción presentada por Jon Urkola en representación de la confederación sindical ELA y suscrita por PSE-EE/PSOE: Garantía de empleo en la municipalización de servicios públicos de Erreneria.

Leida la siguiente moción por Jon Urkola Zubeldia, representante del Sindicato ELA y de los Trabajadores de la OTA:

“Antecedentes

En un estado social, el establecimiento de unas condiciones mínimas de vida que posibiliten el desarrollo de las personas es un objetivo que debe estar presente en la actuación los poderes públicos.

La crisis económica está teniendo un efecto muy negativo en el mercado laboral. El paro ha aumentado y las condiciones de trabajo de quienes tienen empleo están sufriendo, en muchos casos, recortes importantes.

En este contexto, el equipo de gobierno del municipio de Erreneria presentó ante la ciudadanía del municipio un acuerdo programático, donde uno de los puntos a desarrollar era el de municipalizar los servicios público que el ayuntamiento ofrecía a los ciudadanos mediante empresas privadas subcontratadas.

Bildu eta Irabaziz alderdiek gizarte- eta lan- eskubideen aldeko borroka dute sartua beren programetan. Hain zuzen 3 urtez TAO zerbitzua udaleko bihurtzea prestatzen ari dira, haiek esan dutenaren arabera, baina proposamen horretan ez dute langileekin kontaktu, horrek zer esan nahi duen dakiten arren, lanpostua galtzea, alegia, eta jakitera eman dutenean dena lotua zegoen.

TAO zerbitzua kudeaketa eskusibo moduan jaio zen enpresa pribatu baten bidez, eta, hortaz, ez dago zerbitzua berriro udaleko bihurtzea. Zerbitzua enpresa pribatu desberdinek eman dute, baina duela 25 urtez geroztik beti langile bertsuak aritu dira.

Proposamen honen abiapuntuan dago beste alde batera ez begiratzeko eta, ahal den neurrian, ziurgabetasun egoera hau konpontzen saiatzeko borondatea, praktikan enpresa pribatuen bidez Udalarentzat eta Errenteriarentzat lan egiten duten pertsonen lasaitasun eta egonkortasuna eskainiz.

Errenteriako TAOko langileak

TAOk Errenterian guztira 9 langile ditu. Langileen batezbesteko adina 40 eta 55 urte bitarte dago, eta familia-kargak dituzte.

Langile kolektibo honek 25 urte daramatza zerbitzuan, eta haien kualifikazioak zaharkituta gelditu dira TAOtik kanpoko beste jarduera batzuetan ez aritzeagatik. Hori horrela, jarduera horretatik kanpoko beste esparru batzuetan enplegua eskuratzeko arazo larriak dituzte.

Arestian gobernu taldeko arduradunek prentsa

Bildu e Irabaziz incorporan en sus programas la lucha por los derechos sociales y laborales, estos mismos partidos llevan 3 años preparando la municipalización del servicio OTA, como así lo han afirmado, sin incluir en dicha propuesta con los trabajadores, dándolo a conocer cuando ya estaba todo atado.

El servicio OTA nació como gestión exclusiva a través de empresa privada, no pudiendo existir por tanto la reversión o remunicipalización, dicho servicio se ha venido dando a través de diferentes empresas, pero siempre con el mismo personal desde hace 25 años.

Esta propuesta parte de una voluntad de no mirar hacia otro lado y de tratar de aportar, desde lo posible, para revertir esa situación de incertidumbre, y dar tranquilidad y garantías de estabilidad en el empleo a quienes hoy, vía empresas privadas, trabajan en la práctica para el Ayuntamiento y el pueblo de Errenteria.

La plantilla de la OTA de Errenteria

La plantilla de la OTA en el Municipio de Errenteria está compuesta por un total de 9 personas. Se trata de un perfil de trabajadores de una edad media de entre los 40 y los 55 años, con cargas familiares.

Se trata de un colectivo de trabajadores que llevan prestando el servicio desde hace 25 años, con cualificación han quedado obsoletas por la falta de desarrollo en otras actividades fuera de la OTA y con serios problemas de empleabilidad en otros ámbitos fuera de la actividad.

Recientemente los responsables del equipo de

komunikatu bat eman zuten informatzeko Errenteriako Udalak garabia zerbitzua berriro udaleko bihurtuko zuela eta TAO zerbitzua, berriz, udaleko bihurtuko zuela.

Bi zerbitzu desberdin direnez, baldintza-agiri independenteak dituztenak, garabia zerbitzua berriro udaleko bihurtzea 2017ko irailerako arautu zen, eta informatu zen TAO zerbitzua 2017ko abenduaren 5etik aurrera bihurtuko zela udaleko, data horretan amaitzen baita egungo zerbitzua ematea arautzen duen baldintza-agiria.

Udaleko alderdi politikoekin bilera batzuk egin ondoren, langileek kontrastatu egin dute borondate irmoa dagoela zerbitzu horiek udal langile propioekin bere gain hartzeko planarekin jarraitzeko. Hori horrela, arduradun horiek planteatzen zuten ezinezkoa zela egungo langileak udal langile gisa bere gain hartzea.

Gauzak horrela, eta kontuan hartuta langileak udaleko bihurtzeko prozesuak garrantzi berezia duela Udalak azpikontratutako gainerako zerbitzuen kasuan eredugarri izan baitaiteke, beharrezkoa da jarrera bat hartzea etorkizunean udaleko bihurtzeko eman litezkeen prozesu guztietan aplikatu ahal izateko, egun arte zerbitzua enpresa pribatuen bidez modu indirektoan lanean ari diren pertsonen enplegua bermatuz etorkizunean.

Enplegu planak

Udalak egungo plantilletan eman litezkeen ondorio negatiboak arintzeko abian jarri nahi dituen enplegu planek enplegu egonkor eta iraunkorra izateko bermea jaso beharko dute, baita gutxieneko kalitatea lan-baldintzei dagokienez, eta ez dute pertsonen

Gobierno emitieron un comunicado de prensa en el que se informaba de que el Ayuntamiento de Errenteria procedería a remunicipalizar el servicio de Grúa y a municipalizar el servicio de OTA del municipio.

Al tratarse de dos servicios diferenciados, con los pliegos independientes, se reguló la remunicipalización del servicio de Grúa para el mes de septiembre del año 2017 y se informó de la municipalización del servicio de OTA a partir del 5 de diciembre del 2017, fecha en la que finaliza el pliego que regula la actual prestación del servicio.

Tras diversas reuniones realizadas con los diferentes grupos políticos del consistorio, los trabajadores han contrastado la firme voluntad de continuar con el plan de asumir dichos servicios directamente con personal propio municipal, de forma que dichos responsables planteaban como irrealizable la asunción del actual personal como personal del ayuntamiento.

En esta tesitura, y teniendo en cuenta que el proceso de reversión cobra especial importancia por resultar ejemplarizante para la reversión del resto de servicios subcontratados por el Ayuntamiento, es necesario adoptar una postura que sea aplicable a todos los procesos de municipalización que en el futuro se puedan dar, garantizando el empleo en el futuro, de las personas que hasta la fecha los prestan de forma indirecta vía empresas privadas.

Planes de Empleo

Los planes de empleo que el Ayuntamiento pretenda poner en marcha para paliar los efectos negativos que puedan darse en las actuales plantillas deberán recoger garantías de empleo estable y duradero, así como de una calidad mínima en cuanto a las

enplegarritasuna oinarritu behar eskualdeko enpresei ematen zaizkien diru-laguntzetan.

Konpromisoa

Azaldutako arazoen aurrean, mozio honekin sustatu nahi da udal zerbitzuak lehengoratzean udalarentzat zerbitzuak modu indirektoan ematen dituzten pertsonen enplegua mantentzeko konpromisoa izatea.

Funtsean, zerbitzuak lehengoratzeaz gain pertsonak ere lehengoratu nahi dira, horiek baitira, azken finean, aipatutako zerbitzuak benetan eskaintzen dituztenak. Hori ez egiteak zerbitzuen errealitatearen gizatasuna kentzea lekarke.

Proposamena

Azaldutako aurrekarien aurrean, gomendagarria da mozio hau idaztea eta Udalbatzak akordio hau onartzea:

Akordioa:

“Errenteriako Udalbatzak erabaki du akordio hau onartzen denetik aurrera beharrezko tramiteak egiten hasiko dela, ahalik eta lasterren, jarraian adieraziko ditugun enplegu-bermeak txertatzeko egungo zein etorkizunean zerbitzuak lehengoratu egingo diren prozesuetan. Ondorioz, Udalak zerbitzu horiek zuzenean bere gain hartzen dituenean, bere gain hartuko du ordura arte zerbitzuak eman dituzten pertsonen enplegu duin eta iraunkorra izatea eta, ahal dela, ematen zuten zerbitzuarekin zerikusia duena.

condiciones de trabajo, no debiéndose basar la empleabilidad de las personas en subvenciones a empresas de la comarca.

El compromiso

El compromiso que con esta Moción se pretende impulsar ante la problemática expuesta es el de que, en la reversión de los servicios públicos municipales exista una garantía en el mantenimiento del empleo de las personas que de forma indirecta prestan servicios para el ayuntamiento.

Básicamente, se trata de no solo revertir servicios, sino de revertir personas, que a fin de cuentas, son quienes prestan de forma real los mencionados servicios. El no hacerlo, supondría deshumanizar la realidad de dichos servicios.

Propuesta

Los antecedentes descritos recomiendan la redacción de la presente moción y aprobación del siguiente acuerdo par parte del Pleno municipal:

Acuerdo:

“El pleno del Ayuntamiento de Errenteria decide que a partir de la fecha de adopción del presente acuerdo comenzará con los trámites necesarios para, a la mayor brevedad posible, incluir las siguientes garantías de empleo en todos los procesos, presentes o futuros, donde se vaya a revertir los servicios públicos, de forma que cuando el Ayuntamiento asuma dichos servicios de forma directa, asumirá que las personas que hasta la fecha hayan prestado dichos servicios tendrán una garantía de empleo, digno, duradero, y en la medida de lo posible, vinculado al servicio

1. Udalak langileak subrogatzea

Errenteriako Udalak, zerbitzuak lehengoratzeko prozesua gauzatu nahi duenean, pertsonak ere lehengoratuko ditu. Ildo horretan, Udalak zerbitzuak lehengoratzen direnean langile horiek ere lehengoratzea sustatuko du, progresiboki, pertsonak modu naturalean lan-merkatutik erretiratu bitartean.

2. Enplegurako berme osoa

Ordura arte zerbitzua modu indirektoan ematen duten pertsonak langile propietzat bere gain hartzea ezinezko egiten duten arrazoirik balego, Udalak langile horiei lanpostua bermatuko die, dela Udalean bertan zerbitzua ematen duten beste enpresa batzuetan, dela ordura arte zerbitzua eman duten enpresetan birkolokatzeko konpromisoaren bidez, zerbitzu publikoen lehengoratze bat emango balitz langile horiek inoiz enplegua gal ez dezaten.

3. Printzipio eta irizpide horiek jarraitzeko konpromisoa

Aurreko paragrafoetan jasotako printzipio eta irizpideak zerbitzu publikoak lehengoratzeko baldintza berezi gisa ezarri eta kasu guztietan bete behar dira.

Honako parte hartze hau egon da:

* Bertaratutako herritarren artean, ELA sindikatuko

que prestaba.

1. Subrogación del personal por parte del Ayuntamiento.

El Ayuntamiento de Errenteria promoverá, cuando pretenda desarrollar un proceso de reversión de servicios, también la reversión de personas, En este sentido, el Ayuntamiento fomerntará la asunción de dicho personal cuando exista una reversión de servicios, de forma progresiva, y hasta que dichas personas de forma natural se vayan retirando del mercado de trabajo.

2. Garantía plena de empleo.

En caso de que, debido a razones que impidan de cualquier manera posible que el Ayuntamiento asuma como propio el personal que hasta la fecha preste el servicio de forma indirecta, garantizará de forma plena el puesto de trabajo a todos los trabajadores, bien en otras empresas que presten servicios en el propio Ayuntamiento, bien mediante compromisos de recolocación en las empresas que hasta la fecha hayan prestado el servicio, de forma que los trabajadores nunca puedan perder el empleo por cuando se dé una reversión de servicios públicos.

3, Compromiso de seguimiento de los citados principios y criterios.

Los criterios y principios establecidos en los párrafos anteriores deberán establecerse como condiciones especiales de reversión de servicios públicos y deberán cumplirse en todos los casos.”

Se produce la siguiente intervención:

* Interviene desde el público en euskera Jon Urkola,

eta, oraingo honetan, TAO zerbitzuko langileen ordezkaria den Jon Urkolak parte hartu du. Mozioa aurkezteko lehen arrazoia, eta garrantzitsuena, izan da TAO eta Garabia zerbitzuak udaleko bihurtzearen ondorioa. Mozioarekin lortu nahi duten ondorioa ez da bi sektore horietarako soilik; izan ere, Udaltza honek mozioari erantzunez gero, erantzuna orokorra izatea nahi dute, ez bakarrik TAO nahiz Garabia zerbitzuetako langileentzako erantzuna. Denak jakitun izan daitezten, hori izango da bere lehen eskaria. Behin eta bitan ez ezik, askotan ere adierazi dute zerbitzuak udaleko bihurtzearen alde daudela. Gainera, uste dute urrats horiek ematea positiboa dela, Errenterientzat eta, oro har, Euskadientzat baina, hala ere, zerbitzuak udaleko bihurtzeko beste modu desberdinak badirelakoan daude. Hemen, Errenterian, aukeratutako modua, zerbitzua ematen ari ziren langileak kontuan ez hartzea izan da eta horretarako ematen den arrazoia Legezketasunarena da. Gaur egun oso modan dago legezkoa denari eta ez denari buruzko eztabaida eta bakoitzak hartzen duen jarrera, horretan ideologiak zeresan handia du. Ez da asko urrutiratuko, une honetan Katalunian dagoen arazoaren inguruan, batzuk justiziaren aldeko jarrera hartzen dute eta beste batzuk Legearen aldekoa. Eurek ez dute ukatzen legea bete behar denik baina, era berean, ideologia eta borondate apur bat eskatzen dute. Bi zerbitzu horien kasuan, modu alternatiboak erabili daitezkeela uste dute. Udalak bere zerbitzu bihurtu nahi baditu, horretaz hitz egiteko borondate osoa erakutsi nahi du, baita elkartasuna eta laguntza ere, baina, betiere, udaleko bihurtze horiek kaleratzeak eragiten ez badituzte eta, kasu honetan, Errenteriako gizarteak jakin dezan abenduaren 5ean TAOko langileak kalean geratuko direla. Hori da errealitatea, baita mozioan eskatzen dutena ere; ez dute konpromisorik eskatzen, ezta federik ere, horretarako daude tenpluak. Udalari

representante del Sindicato ELA y en este caso representante también de los trabajadores de la OTA. El primer y más importante motivo para presentar la moción ha sido el efecto que se ha producido en la OTA y en la Grúa con la municipalización. El efecto que quieren conseguir con la moción no es únicamente para estos dos sectores, si este Pleno da una respuesta a su moción quieren que sea una respuesta general, no solamente para los trabajadores de la OTA o de la Grúa, esa, para que todos lo sepan, será su primera solicitud. No han dicho una, ni dos, sino innumerables veces que ellos están por la municipalización de los servicios, además creen que para Errenteria y para la sociedad de Euskadi en general es positivo dar esos pasos, pero creen que hay modos diferentes de municipalizar los servicios. Aquí, en Errenteria, el modo que se ha elegido es el de no contar con los trabajadores que estaban dando ese servicio y la razón que se da para hacerlo así es la Legalidad. Hoy en día está muy de moda la discusión sobre lo que es legal y no lo es y donde se posiciona cada uno, ahí la ideología tiene mucho que decir. No va a irse muy lejos, en el conflicto que existe en este momento en Cataluña unos se posicionan al lado de la justicia y otros al lado de la Ley. Ellos, aquí no van a negar que haya que cumplir la legalidad, pero también piden un poco de ideología y de voluntad. Creen que en el caso concreto de estos dos servicios existen modos alternativos de hacerlo. Si el Ayuntamiento quiere municipalizar los servicios tiene toda su voluntad para hablar de ello, su solidaridad y su apoyo, pero siempre que esas municipalizaciones no conlleven despidos, y en este caso, para que lo sepa la sociedad de Errenteria, el 5 de diciembre los trabajadores de la OTA se irán a la calle. Eso es una realidad y lo que piden en la moción es una realidad, no piden compromiso o fe, para eso están los templos, ellos piden a este Ayuntamiento realidades,

errealitateak eskatzen dizkiote, konpromisoa, datak eta gainerakoak mahai gainean jartzeko eta, orain ez ezik, aurrerantzean ere izango ez direla erantzuten zaie. Borondatea besterik ez zaie erakusten eta borondate hutsarekin ez dira argindarraren fakturak ordaintzen eta ez zaie seme-alabei jaten ematen. Dramatiko jartzen ari dela eman dezake baina, 50 urte izanez gero, ikasketak zaharkituta, 25 urtetan lan bera eginez eta Erreterian bizi nahiz lan egiten duzunean, kalean geratzeak seme-alabei jaten emateko zailtasuna dakar. Ustez ez da inoren borondatea horrelakorik gertatzea, baina bide horretatik doaz eta, hori ekidite aldera, mozioa bere horretan onartzea eskatzen dute. Horrek adieraziko du Udalak konpromiso erreala duela, ez bakarrik intentzio mailakoa, eta langileei prozesu bat eskaini beharrean, lanpostua bermatuko zaiela. Horregatik guztiatik, Udaltzari eskatzen diote mozioa horrela onar dezan edo, behintzat, filosofia horri jarraiki.

Parte hartzea amaituta,

Collar jaunak (Erreteria IrabaziZ) gobernu taldearen izenean, ordezkotako mozioa aurkeztu du TAO eta garabi zerbitzuak publiko bihurtzeari buruz:

TAO ETA GARABI ZERBITZUAK UDALAREN ESKU GERATZEARI BURUZKO MOZIOA

Erreteriarako Udalean oraingo gobernu taldearen jarduketan oinarria **“2015-2019, udal politikarako oinarrien akordioa”** da. Hori horrela, kalitatezko zerbitzu publikoak sustatzearen aldeko apustua egin du herritarren interesei erantzun egokia emateko asmoz. Horretarako, beharrezkoa da azpikontratatuak zerbitzuak udalaren esku berriz geratzea.

le piden plazos, le piden compromiso, le piden que pongan fechas y las cosas sobre la mesa y se les responde no solo que no hay en este momento, sino que no habrá, solo se les manifiesta voluntad y con la voluntad no se pagan las facturas de la luz, ni se da de comer a los hijos. Puede parecer que se pone dramático, pero si tienes 50 años, con los estudios oxidados, cuando has hecho el mismo trabajo durante 25 años, cuando vives y trabajas en Erreteria, el irte a la calle conlleva la dificultad para dar de comer a tus hijos. Cree que no es voluntad de nadie que eso ocurra, pero van por ese camino y para evitarlo piden que se apruebe la moción tal y como está, porque eso supondrá que el Ayuntamiento tome un compromiso real, no de intenciones y que a los trabajadores no se les ofrezca un proceso, sino que se les garantizará un puesto de trabajo. Por todo ello piden al Pleno de la Corporación que aprueben la moción de ese modo o al menos con esa filosofía.

Finalizada la intervención.

El Sr. Collar (Erreteria IrabaziZ) en representación del Equipo de Gobierno, presenta la siguiente moción alternativa relativa a la publicación del Servicio de la OTA y la Grúa:

“MOCIÓN RELATIVA A LA PUBLICACIÓN DEL SERVICIO DE LA OTA Y LA GRÚA

En el **“Acuerdo de bases de política municipal 2015-2019”** sobre el que se basa la actuación del actual equipo de gobierno del Ayuntamiento de Erreteria se apostaba por el fortalecimiento de unos servicios públicos de calidad que respondiesen a los intereses de la ciudadanía. Fortalecimiento que pasaba y pasa por la publicación de servicios que se encuentran subcontratados.

Akordio horrekiko konpromisoa betetzeko, duela gutxi jakitera eman zen TAO eta garabi zerbitzuak udalaren esku geratuko zirela. Garabi zerbitzuaren kontratua irailaren 12an amaitu zen eta TAOrena abenduaren 5ean amaituko da. Zerbitzu horietako langileentzat ondorioak etorriko zirelakoan, eta ondorio horiek arintzeagatik, Errenteriako Udalak langileak birkokatzeko plana aurkeztu zuen. Planak oinarritzat hartzen zituen lehendik abian jarritako beste plan batzuk, emaitza onak eman dituztenak, eta aurrekontua 200.000 eurokoa zen.

Denbora horretan zehar TAO zein garabi zerbitzuetako langileekin hitz egin da. Garabi zerbitzuko langileekin hitz egin eta gero, plana aldatu eta aberastu da, baita plana gauzatzeko diru kopurua handitu ere, 325.000 eurokoa izanik.

Testuinguru horretan, bi zerbitzuetako langileak kontuan hartuz, Errenteriako udalbatzak ondoko erabakia hartu du,

ERABAKIA

LEHENA.- TAO zein garabi zerbitzuetako langileekiko konpromiso sendoa duela adierazten du. Hori dela eta, zerbitzua Udalak berriz hartzean sortzen den egoerari irtenbidea bilatzeko konpromisoa hartzen du, besteak beste, aurkeztutako birkokatzeko plana.

BIGARRENA.- Errenteriako Udalak zerbitzuok kudeatu dituzten edo kudeatzen ari diren enpresei

Respondiendo al compromiso adquirido en el citado acuerdo, recientemente se anunció la publicación de los servicios de OTA y Grúa. El contrato de grúa finalizaba el 12 de septiembre, y el de la OTA el 5 de diciembre. Considerando que la publicación del servicio de OTA y Grúa tenía consecuencias sobre los y las trabajadoras de dichos servicios, el Ayuntamiento de Errenteria, en orden a paliar las citadas consecuencias, presentó también un plan de recolocación para estas personas. Este Plan, que se basaba en otros planes ya puestos en marcha y que tienen resultados realmente positivos, estaba dotado de un presupuesto de 200.000 €.

En este tiempo, se han llevado a cabo conversaciones tanto con los y las trabajadoras de la OTA como con los de la grúa. Como consecuencia de las conversaciones llevadas a cabo con los trabajadores de la grúa, el plan ha sido modificado y mejorado, y dotado de un incremento presupuestario, en la cantidad de 325.000 €.

En este contexto, y teniendo en cuenta la situación de los y las trabajadoras de ambos servicios, el Pleno del Ayuntamiento de Errenteria adopta el siguiente,

ACUERDO

PRIMERO.- El Ayuntamiento de Errenteria muestra su firme compromiso con el futuro de las y los trabajadores de los servicios de OTA y grúa. En este orden, se compromete a buscar una solución a su situación como consecuencia de la publicación del servicio, que pasa por el plan de recolocación ya presentado.

SEGUNDO.- El Ayuntamiento de Errenteria solicita a las empresas que han gestionado o gestionan los

dagokien legezko erantzukizuna onartu dezatela eskatzen die, beren langileen birkokapena barne hartuz.

HIRUGARRENA.- Errenteriako Udalak konpromisoa hartzen du sindikatuekin hitz egiten jarraitzeko eta, ahal den neurrian, aurkeztutako plana hobetzeko. Planaren xedea lanpostu duin eta egonkorak lortzeko bilaketari ekitea da.

LAUGARRENA.- Errenteriako Udalak apustu egiten du zerbitzu publikoen alde, herritarren beharrak egoki betetzen direla bermatzeko helburuz, zerbitzu publikoetako langileen aukera-berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioekin bat etorritz.

Jarraian honako adierazpenak egin dira

* Collar jaunak (Errenteria IrabaziZ) adierazi du bere taldean, gizarte justuago baten aldeko konpromiso politikotik, beti egon eta egongo direla kudeaketa publikorako espazioak irabaztearen alde, egungo Gobernuaren jardueraren funtsa den 2015-2019, udal politikarako oinarrien akordioan azaldu bezalakoari jarraiki. Herritarren interesei erantzuten dieten kalitatezko zerbitzu publikoak indartzearen aldeko apustu argia. Azpikontrataturik dauden zerbitzuak udaleko bihurtzeko bidean aurrera egitea beharrezkoa duen indartzea. Zerbitzu horietara heltzeko, berdintasuna, merezimendua eta gaitasuna oinarri hartzea da bide bakarra. Hori da euren konpromisoa baina, era berean, azpimarratu nahi dute, zerbitzuak udaleko bihurtzeko bidean, ez dutela inor utziko behar duen babesik gabe. Hori dela eta, bi kolektibo horiei, TAO eta Garabi zerbitzuetaoei, egin diete langileak birkokatzeko planari buruzko

citados servicios a asumir su responsabilidad legal, incluida la recolocación de sus trabajadores y trabajadoras.

TERCERO.- El Ayuntamiento de Errenteria se compromete a intensificar las negociaciones con los sindicatos y a mejorar en la medida en que sea posible el plan de recolocación presentado a los mismos. Este plan irá encaminado a la búsqueda de un empleo en condiciones dignas y estables para dichas personas.

CUARTO.- El Ayuntamiento de Errenteria apuesta por unos servicios públicos que garanticen una mejor asistencia a la ciudadanía de Errenteria. Unos servicios públicos cuyo acceso en todo caso será de acuerdo a los criterios de igualdad de oportunidades, mérito y capacidad.

Se producen las siguientes intervenciones

* Interviene el Sr. Collar (Errenteria IrabaziZ) manifestando que su Grupo desde el compromiso político de una sociedad más justa, está y estará siempre a favor de ganar espacios para la gestión pública, tal y como lo expusieron en el acuerdo de bases de política municipal 2015 – 2019 sobre el que se basa la actuación del actual Gobierno de esta institución. Una clara apuesta por el fortalecimiento de unos servicios públicos de calidad que respondiesen a los intereses de la ciudadanía. Un fortalecimiento que pasa por ir avanzando en la publicación de servicios que se encuentran subcontratados. Unos servicios públicos a los que consideran únicamente se puede acceder desde las bases de igualdad, mérito y capacidad. Este es su compromiso, pero también quieren subrayar que no van a dejar a nadie sin el apoyo que pueda necesitar en el camino de la publicación de servicios. Es por

proposamena. Denbora horretan zehar, elkarrizketak izan dituzte bi kolektiboekin eta, elkarrizketa horien ondorioz, plana aldatu eta hobetu egin da. Horrenbestez, mozio honetan aurkeztutako lau puntuek jasotzen dute udaleko bihurtzearen alde duten konpromisoa, sortutako egoera honi irtenbidea ematearekin batera. Hori da euren ustez akordioaren eta akordiorako bidea.

* Peña andereak adierazi du bere taldekoek gaur ez dutela ELAk aurkeztutako mozioaren aldeko botorik emango, ezta Gobernu Taldeak aurkeztutakoaren aldekorik ere. TAOko langileek aurkeztu duten mozioari buruz esan du, denek dakiten bezala, txosten juridiko bat dagoela jarrera zein den, eta errealitatea zein den, islatzen duena eta ez dago horretatik ihes egiterik baina, halaber, ez zaie egokia iruditzen kontratu honen kudeaketarekin gertatzen ari den inguruko hausnarketarik ez egitea eta jarrerarik ez hartzea. Batez ere, guztiok ezagutzen dutelako zein den mozio honen atze oihala, zein langileen xedea, bere ustetan, ulergarri eta zilegi den bezala, lanpostua mantentzeko xedea. Puntu honetan, bere Udal Taldearen ikuspegitik, oztopoak non dauden eta irtenbideak non egon daitezkeen aztertu nahiko luke. Onartu beharra dago Gobernu Taldeak, zerbitzua udaleko bihurtzeko, proposatzen duen estrategia, hutsik gabeko estrategia, estrategia biribila dela uste du, oso estrategia egokia da. Hasiere batean kritika gehiegi ez izatea aurreikusi den zerbitzu bat udaleko bihurtzea, orain bertan ikusi ahal izan den bezala, langile batzuek begi onez ikusten dute. Udaltzaingoan lanpostuak sortzearekin duen lotura gaineratuz gero, gauza positiboa da. Denek ezagutzen dute herri honek bide segurtasun handitzearen inguruan duen beharra, hori beste datu

ello que han realizado la propuesta a ambos colectivos sobre el plan de recolocación para los y las trabajadoras, tanto de la OTA como de la Grúa. En este tiempo han llevado a cabo conversaciones con ambos colectivos, y consecuencia de tales conversaciones el plan ha sido modificado y mejorado. Es por ello que los cuatro puntos que presentan en esta moción recogen su compromiso con la publicación abordando la solución a esta situación creada. Esta es la vía que consideran del y para el acuerdo.

* Interviene la Sra. Peña manifestando que su Grupo hoy no va a votar a favor de la moción presentada por ELA, ni tampoco de la presentada por el Equipo de Gobierno. En el caso de la moción que presenta el colectivo de trabajadoras y trabajadores de la OTA, no se le escapa a nadie que hay un informe jurídico que retrata cual es la posición y cual es la realidad, al que no se pueden escapar, pero tampoco les parece oportuno escapar de la reflexión y del posicionamiento de lo que está pasando con la gestión de este contrato. Sobre todo porque todas y todos conocen cuál es el trasfondo de la moción, cuál es la aspiración del colectivo de trabajadores y trabajadoras, que entiende no es otra que la de pensar en su puesto de trabajo, como es comprensible y desde luego legítimo. Aquí quería hacer un análisis desde la perspectiva de su Grupo Municipal sobre donde están los escollos y donde pueden estar las soluciones. Hay que reconocer que la estrategia que plantea el Equipo de Gobierno para publicar el servicio, considera que es impecable, es una buena estrategia. Publicar un servicio que a priori se prevé no tenga demasiadas críticas, ahora mismo se ha podido ver como, por parte del colectivo de trabajadoras y trabajadores, lo ven con buenos ojos. Si se le suma la interrelación de la creación de puestos de trabajo en la Policía Municipal es también

positibo bat da. Gainera, udal baliabideak optimizatzeari buruzko aipamena ere gehituz gero, beste datu positiboa da. Eta langileak birkokatzeko iragarri, agindu den inbertsioa gaineratuz gero, esan bezala, estrategia zentzuduna eta ona da. Dena den, estrategia bezain garrantzitsua da aurrera eramateko modua, zer dagoen horren atzean eta hortxe hasten dira eragozpenak ikusten. Eta ikusten dituzte hainbat kontu garrantzitsu daudelako, euren ikuspegitik, gaia kokatzeko. Horietako bat, oker ez badabil, langileek erabakia prentsa bidez ezagutu dutela eta horrek

talka egiten du talde horrentzako irtenbidea bilatzeko borondate argi eta garbiarekin, batik bat, parte hartzaile gisa definitzen den Gobernu Talde batean. Collar jaunak egin bezala, denboran atzera eginez gero, 2015-2019 gobernuaren akordio estrategikoraino, esan behar da 2017 urtean daudela eta denbora soberan egon dela zerbitzua udaleko bihurtzea lantzeko, prestakuntza desberdinen bidez edo beharrezko beste bide batzuen bidez. Nonbait irakurri dueneraino atzera eginez gero, Gobernu Taldeak hiru urte daramatzala hori lantzen, oraindik atzerago jo behar dugu, Collar jaunaren taldea Udalean ez zegoen uneraino, hain zuzen. Horrek adierazten duena da zerbitzuak udaleko bihurtzea eszenifikatzeko borondate politiko argia, baina langileei benetan babes hori emateko borondate eskasa, bi edo hiru urteetan ez baita irtenbide hori landu. Zerbitzuak udaleko bihurtzeko gaiak ere badu bere "koxka", zerbitzu bat udaleko bihurtu, publikatu egiten dela esaten delako eta, hala ere, zerbitzu horren zati bat betetzeko lehiaketa egin da eta, horrexegatik, hori ere zalantzan jartzekoa da. Noraino ote da zerbitzua udaleko bihurtzea eta noraino ote da kontratua haustea, oinordetzarako trakturik ez izateko intentzioarekin. Hori da arrazoietako bat pentsarazten diena jarrera politikoa dela eta ez interesa, batez ere bizpahiru urteotan egin duten lanaren helburua

algo positivo. Todos conocen cual es la necesidad que tiene este municipio en cuanto al incremento de la seguridad vial, es otro dato positivo. Si a eso le suma la alusión a una optimización de los recursos municipales, es otro dato positivo. Y si le suman una inversión anunciada, prometida, para la recolocación de los trabajadores y trabajadoras, como decía, es una estrategia inteligente y buena. Lo que pasa es que tan importante como la estrategia, es el cómo se lleva a cabo, qué hay detrás de la misma, y ahí empiezan a ver los peros. Y los ven porque hay una

serie de cuestiones importantes, bajo su punto de vista, para situar el tema. Una, salvo que esté equivocada, es que el colectivo de trabajadores y trabajadoras conocen esta decisión por la prensa, lo que choca de frente con una voluntad inequívoca de buscar una solución para este colectivo, sobre todo en un Equipo de Gobierno que se define como participativo. Si se remontan, tal y como ha hecho el Sr. Collar, al acuerdo estratégico de gobierno 2015-2019, decir que están en 2017 y ha habido tiempo de sobra para ir trabajando esa municipalización del servicio y ese dar respuesta al colectivo, con diversas formaciones o lo que fuera necesario. Si se remontan a lo que en algún sitio ha leído, que el Equipo de Gobierno lleva tres años trabajando, esto se sitúa todavía en un momento anterior, en el que el Grupo al que representa el Sr. Collar ni tan siquiera estaba en el Ayuntamiento. Esto lo que les indica es una clara voluntad política de escenificar una publicación de los servicios, pero una escasa voluntad de realmente dar ese apoyo a los trabajadores, puesto que durante tres o dos años no se ha trabajado esa salida. El tema de la publicación también tiene "su aquel", porque se dice, se publica, se municipaliza un servicio y sin embargo, sale a concurso una parte de ese servicio, con lo cual también eso es cuestionable. Hasta qué

zerbitzua udaleko bihurtzea izan da, edo zerbitzu guztiak publiko bihurtzea eta planifikazio falta dago. Zein dira udaleko bihurtuko diren zerbitzuak? Lehentasunak zeri erantzuten dio? Bere ustez, ona iruditzen zaion estrategia honen bitartez, TAO zerbitzua une egokian geratu da, zerbitzuari ekiteko egoera egokian. Epeak garrantzitsuak direla uste du, abenduan amaitzen da kontratu bat, lan egiteko modu guztiz desberdinaren aldeko apustua egiten da, modu horrek fruiturik emango duen ala ez aztertu gabe. Hasieran esan bezala, ikuspegi publiko batetik, estrategia ona da baina, hutsune handia dago

tramitazio horrek eraman duen bidearen atzean, benetan garrantzitsuena langileak badira. Izan ere, prestakuntza prozesu batean 200.000 euro inbertitzea, hau da, enpresetarako diru-laguntzetan, zalantzarik gabe dirutza da baina, bestalde, badakite horrek ez duela bermatzen, erabakitako epe horretatik aurrera, lanpostu horietan jarraitasunik egongo denik. Gobernu Taldeak aurkeztutako mozioari dagokionez, beraiek ere abstenitu egingo dira, laugarren puntua erabat onargarria bada ere, lehenaren eta bigarrenaren artean kontraesana ikusten dute. Lehen puntuak honela dio: "Errenteriako Udalak TAO zein garabi zerbitzuetako langileekiko konpromiso sendoa duela adierazten du. Hori dela eta, zerbitzua Udalak berriz hartzean sortzen den egoerari irtenbidea bilatzeko konpromisoa hartzen du, besteak beste, aurkeztutako birkokatze plana", bigarrenean, berriz, "Errenteriako Udalak zerbitzuok kudeatu dituzten edo kudeatzen ari diren enpresei dagokien legezko erantzukizuna onartu dezatela eskatzen die, beren langileen birkokapena barne hartuz". Ondorengo galderak egin nahi ditu: zein? Udalak aurretik aurkeztua dagoen birkokatze plana egingo du eta kolektibo horrentzako lan irtenbide bat dagoela bermatuko du? Edo, enpresari bere kontura egitea exijituko dio? Enpresaren egoera zein den ere

punto es una municipalización del servicio o hasta qué punto es una ruptura contractual con intención de que no tenga tracto sucesorio. Esta es una de las cuestiones que les lleva a pensar que lo que hay es un posicionamiento político y no un interés, sobre todo porque llevan dos o tres años trabajando en ese objetivo de municipalizar o publicar todos los servicios y hay una ausencia de planificación. ¿Cuáles son los servicios que se van a municipalizar?, ¿a qué responde la prioridad?, cree que la OTA, con esta estrategia que le parece buena, ha quedado en buen momento, en buena

posición para abordarla. Piensa que los tiempos son importantes, en diciembre acaba un contrato, se apuesta por una manera absolutamente diferente de trabajar sin testear si esa manera de trabajar va a dar resultado o no. Como decía al inicio, entiende que la estrategia es buena desde el punto de vista público, pero por detrás hay mucho vacío en todo el camino que ha debido llevar esta tramitación si realmente lo que importa son los trabajadores y trabajadoras, porque invertir 200.000 euros en un proceso de formación o de recolocación, de subvenciones en definitiva para las empresas, es indudable que es mucho dinero, pero por otro lado saben que eso no garantiza que más allá del tiempo estipulado vaya a haber una continuidad en esos puestos de trabajo. En lo relativo a la moción que presenta el Equipo de Gobierno se van a abstener también, es indudable que el punto cuarto es absolutamente asumible, pero ven que también hay una contradicción entre el primero y el segundo. En el primero se dice " El Ayuntamiento de Errenteria muestra su firme compromiso con el futuro de las y los trabajadores de los servicios de OTA y grúa. En este orden, se compromete a buscar una solución a su situación como consecuencia de la publicación del servicio, que pasa por el plan de recolocación ya presentado",

ez dute ezagutzen. Ustez, bederatzi langilez osatutako kolektiboa da eta estrategia eta ekintzak eskutik joateko unea hau delakoan dago. Irtenbidea sakontzeko denbora hartu behar dute eta, bereziki, zerbitzua eman nahi den modu horretan eraginkorra izango dela bermatzeko; hain zuzen ere, beste hainbat udalerritan proposamen bera baztertua izan delako. Uste du ondo legokeela lehendabizi probatzea eta, ondoren, langileei buruzko erabakia hartzea. Bere ustetan, langileekin landu beharrekoa da eta horixe eskatzen diote Gobernu Taldeari. Denbora hartzeko aukera dagoela uste du, muga abenduan jarri gabe; kontratazio prozedura bat

martxan dago, lizitazioa zein unetan dagoen ez dakien arren, baina bertan aurreikusita dago TAO zerbitzua langile berriek ematea, ez gaurkoan aipatzen ari diren kolektibo horrek. Hori da egiten duten irakurketa, legezketasunetik haratago doana; izan ere, bere ustez, udalbatza osoa, gustatu ala ez, legezketasunak zurrunduta dago.

* Echarte jaunak (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) adierazi du TAOko langileek aurkeztutako mozioa sinatu zutela, ulertzen zutelako abenduaren 5etik aurrera langileek izango zuten egoera, kale gorria, alegia, eta eskubide osoa zutela irtenbidea aurkitze aldera, formulak bilatzeko. Mozioaren

y en el segundo “El Ayuntamiento de Errenteria solicita a las empresas que han gestionado o gestionan los citados servicios a asumir su responsabilidad legal, incluida la recolocación de sus trabajadores y trabajadoras”. Pregunta, ¿cuál?, ¿el Ayuntamiento va a realizar el plan de recolocación ya presentado y se va a encargar y va a garantizar que hay una salida laboral a este colectivo?, o, ¿va a exigir a la empresa que lo haga a su cuenta?. Desconocen también cual es la situación de la empresa. Cree que aquí se trata de un colectivo de nueve trabajadores y que es el momento en que realmente la estrategia y los hechos vayan de la

mano, se den un tiempo para ahondar en esta solución y sobre todo, se den un tiempo para garantizar que el servicio, tal y como se pretende prestar, da resultado, porque están viendo que en otros municipios esa misma propuesta está siendo desechada. Cree que estaría bien primero probar y luego tomar una decisión en lo relativo al colectivo de trabajadores, cree que habría que trabajar con ellos y es a lo que instan al Equipo de Gobierno. Darse un tiempo, no situar la frontera en diciembre, cree que es posible, hay una contratación que ahora está en marcha, no sabe en qué momento de la licitación está, pero sí desde luego que en la misma se contempla que personal nuevo, no de este colectivo que están hablando, preste el servicio en la OTA. Es la lectura que hacen, más allá de estar encorsetados, como cree lo está toda la Corporación, con la legalidad por mucho que no les guste.

* Interviene el Sr. Echarte (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos) manifestando que cuando firmaron la moción que presentaban los trabajadores y trabajadoras de la OTA, lo hicieron desde el punto de vista de que entendían que la situación en la que se van a encontrar a partir del 5 de diciembre, que es

bitartez bilatzen zuten formula zen Udalak automatikoki langileak bereganatzea eta denek hori ezinezkoa dela jakin arren, berriro dio eskaera hori logikoa dela, langileen etorkizuna baita jokoan dagoena eta, zerbitzua ematen 25 urte daraman jende asko kale gorrian geratuko da. Eskatu ahal zen beste aukera bat zen gauzak bere horretan gertatzen eta beste formula bat bilatzen ahalegintzea; EAJko bozeramaileak ondo adierazi bezala, euren ere jakinarazi zitzaizkien hiru urte eman dituztela gai hori lantzen eta ulertzen dute epe horretan bazegoela denbora langileentzako formularen bat begiratzeko, suposizio desberdinak baliatuta. Horrez gain, aurkeztutako ordezkari mozioak "Udalaren konpromiso sendoaz" hitz egiten du baina, oraindik, ez du konpromiso errealik hitzartzen. Era berean, 2. puntuaren ere deigarria gertatzen zaie; zeren eta, Udalak konpromiso sendoa badu, bi aukera ditu: enpresari langileak bereganatu ditzala eskatzea ala Udalak bere gain hartzea langile horiei irtenbideren bat emateko erantzukizuna. Azken batean, bere taldearen xede bakarra beti izan da, eta da, bi aldeak mahai baten inguruan eseri eta biontzat gogobetegarria den formularen bat bilatzea. Talde honek langile guztien lanpostuak defendatzen jarraituko du; horrek oso argi geratu behar du eta, hortik aurrera, abstenitu egingo dira bi mozioak bozkatzeko. Batetik, lehenengoak ez duelako legea betetzen eta bigarrean, berriz, ez duelako irtenbide errealik bilatzeko konpromisorik antzematen.

* Karrikiri andereak (Orereta/Errenteriako EHBildu) euskaraz adierazi du, askotan esan bezala, bere apustua publiko bihurtzearen aldekoa dela. Hori

en principio en la calle, tenían el derecho de ver cuantas posibilidades existían, de qué fórmula debían encontrar. En la moción decidieron buscar la fórmula de que el Ayuntamiento automáticamente les absorbiese, evidentemente todos saben que eso no puede ser así, aunque vuelve a repetir que es lógico que ellos lo pidan porque es de su futuro de lo que se está hablando y hay mucha gente que lleva 25 años trabajando aquí y se va a ver en la calle. Otra de las opciones que podían haber solicitado es la de quedarse las cosas como están y que se busque otra fórmula, porque como muy bien ha dicho ante la portavoz de PNV, también a ellos se les trasladó en su momento que se llevaban tres años con este tema y entienden que en ese tiempo se podría haber mirado qué fórmula se buscaba para los trabajadores en los diferentes supuestos. Hasta el momento ven además que la moción alternativa que se presenta habla del "firme compromiso del Ayuntamiento", pero no cierra un compromiso real. También les llama la atención el punto 2, porque si el Ayuntamiento tiene un compromiso firme, una de dos, o le exige a la empresa que se quede con los trabajadores o de lo contrario asume como Ayuntamiento la responsabilidad de darles salida. En definitiva, su Grupo lo que ha perseguido y persigue en todo momento es única y exclusivamente que ambas partes se sienten en una mesa, se busque una fórmula que sea satisfactoria para ambas. Este Grupo va a seguir defendiendo los puestos de todos los trabajadores, esto que quede clarísimo y a partir de ahí, se van a abstener en las dos mociones, porque la primera está claro que no cumple la legalidad y en la segunda no ven que haya un compromiso firme de buscar una solución real.

* Interviene en euskera la Sra. Karrikiri (Orereta/Errenteriako EHBildu) manifestando que como ya han dicho en muchas ocasiones, su apuesta

